


e-Administrazioaren zerbitzuak darabiltzate Euskal AEko enpresen %83,3k

Euskal enpresek Internet erabiltzen dute nagusiki Foru-aldundiekin; ondoren Administrazio Zentralarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin

Internet duten euskal enpresen %83,3k haren bidez burutzen du izapide edo zerbitzuren bat Administrazio Publikoarekin 2016an, Eustaten arabera. Izapidetzea izan liteke zuzena, hirugarrenen bidez (aholkularitzak...) edo bion bidez. Enpresen %47,3k egin du izapide zuzenen bat; %62,4k hirugarrenen bidez.

10 langile edo gehiagokoetan, izapidetze elektronikoa %91,6 da. Enpresa hauek, tamaina eta baliabideengatik, zuzenekora jotzen dute (%79,4); hirugarrenen bidez, %49,2.

1. grafikoa. Administrazio publikoarekin modu elektronikoan izapideak egindako euskal enpresak (%). 2016



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta Administrazioan. IGI-Administrazioa

Enpresek Administrazioarekin eginiko izapide elektronikoak: Balio Erantsiaren zerga (BEZ) adieraztea (establezimenduen %63,8); inprimakiak lortzea (%61,8); informazioa lortzea (%60,6); sozietateen zerga adieraztea (%52,6); langileen kotizazio sozialak adieraztea (%51,3); betetako inprimakiak itzultzea (%49,5). 10 langile edo gehiagokoetan ehunekoak altuagoak dira.

Izapideok gehien bat, Foru-aldundiekin (%75,2) eta Administrazio Zentralarekin (%60,0). Ehunekoetan eragina dute zerga nagusiekiko eskumenek. Ondoren, Eusko Jaurlaritzarekin (%44,9), tokiko entitateekin (%24,4), Europar Batasunarekin eta besterekin (%8,6).

1. taula: Internet baduten establezimenduak, administrazio publikoekiko izapidetze elektroniko motaren arabera. 2016 (%)


	Sektore publikoa		Administrazio zentrala		Eusko Jaurlaritza		Foru-aldundiak		Toki-erakundeak		Europar Batasuna eta beste	
	Guztira	10 eta gehiag	Guztira	10 eta gehiag	Guztira	10 eta gehiag	Guztira	10 eta gehiag	Guztira	10 eta gehiag	Guztira	10 eta gehiag
Administrazioarekin izapide elektronikoak egiten ditu	83,3	91,6	60,0	80,2	44,9	70,0	75,2	81,8	24,4	41,6	8,6	20,1
Informazioa lortu	60,6	81,9	23,9	50,9	36,4	65,2	50,1	68,0	21,1	37,9	6,7	17,6
Inprimakiak lortu	61,8	80,7	20,1	45,2	34,3	58,1	50,2	67,7	16,6	30,7	3,7	10,6
Inprimakiak itzuli	49,5	73,9	16,6	40,3	25,9	50,6	40,4	60,4	11,8	23,8	2,3	7,7
Prozedurak modu elektronikoan izapidetzea	42,3	65,9	14,1	34,9	19,3	41,8	32,0	49,3	8,0	15,2	2,0	5,4
Lizitazio elektronikoko sistema batean proposamenak aurkeztu (e-procurement)	11,6	19,3	3,5	10,1	5,1	10,2	7,6	10,8	2,0	3,8	1,1	2,4
Enplegatuen gizarte-kotizazioak adierazi	51,3	69,5	50,3	68,7	.	.	.	.	.	.	1,4	1,3
Sozietateen zerga adierazi	52,6	68,8	11,1	17,4	.	.	46,8	62,0	.	.	0,5	0,6
Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) adierazi	63,8	70,3	11,0	18,4	.	.	59,1	64,6	.	.	0,6	0,7
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazi	10,8	24,3	10,6	23,8	.	.	.	.	.	.	0,6	1,1
Beste zapide edo zerbitzu batzuk	3,4	3,7	1,1	1,2	0,9	1,1	1,9	2,1	0,3	0,8	0,2	0,2

Iturria: Eustat. Administrazioaren informazioaren gizartearen buruzko inkesta. IGI-Administrazioa.

10 langile edo gehiagoko enpresetan ehunekoak altuagoak dira, berriz ere. Foru-aldundiekin (%81,8), Administrazio Zentralarekin (%80,2), Eusko Jaurlaritzarekin (%70,0), tokiko entitateekin (%41,6), Europar Batasunarekin eta besterekin (%20,1).

Erkidegoetako administrazioetan, izapide nagusiak Balio Erantsiaren zerga (BEZ) adieraztea, informazioa biltzea eta inprimakiak lortzea dira; Administrazio Zentralean, langileen gizarte-kotizazioak adieraztea.

2. grafikoa. Administrazio publikoarekin modu elektronikoan izapideak egindako euskal enpresak (%). 2016



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta Administrazioan. IGI-Administrazioa

Informazio gehiago.

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

Euskal AEko Informazioaren gizartearen inkesta; prentsa ohar gehiago